

# gutaz

izaera · gogoa · ekina

Euskarak egiten gaituen herria gara.

Nondik datorkigu askatasun gogoa?

Memoria egiteko bost proposamen.

# gutaz

izaera · gogoa · ekina

Herri menperatua gara. Zortzi mendez gaindi menperatua. Ez gara, baina, horren jabe. Bortxaz menperatuak izan ziren haiek ez zuten onartu beste aukerarik izan. Onartu ala hil.

Burujabetza galdu zutenetik, baina, belaunaldiz belaunaldi helarazi digute gogo bat, askatasun gogo bat. Bortxatu gaituzten aitaordekoengatik askatzeko gogo bat. Beraingana lotzen gaituzten korapiloak askatu eta geure etxeko jabe, berriro, geu izateko gogoa.

Gogo hau, baina, ustezko ongizateak apaltzen ari du. Menperakuntza nolabait estalia dago; ez dago begibistan. Historia ezkutatu egin digute, eta egunerokotasunean, normalitate itxura bat, errealitate birtual bat eraiki digute -gure laguntzarekin- instituzio propio ezarriekin.

Bat ginenok, zazpitan zatikatuta gaude. Guk zazpiak bat leloa darabilkigularik. Menperatuok mundua aldrebes ikusteko joera daukagu. Nortasun gabezia, ispiluen bila. Guk ikusi baino, guri begiratu, ispiluaren begietara. Gogoa eta gorputza elkarrengandik banatuz, zatikatuz.

Menpekotasun gaitza sendatzeko, gogo eta gorputza osatzeko, hiru mugarri ditugu bidean: Ohartzea, onartzea eta jabetzea. Jardunaldi hauen gogoa lehen mugarrirako estimuluak ematea da. Ezkutatu diguten memoria historikoa aurkitu dugu memoria lekuetan, gorputzean, artxiboetan, indusketetan... Berauen berri ematea da asmoa. Gogoan eragitea, ohartzeko.

Askapen nazionala, garapen pertsonaletik ekarriko dugulakoan gaude: pertsona askeen eskutik, izan ginenaren hariari tiraka. Mikel Laboaren ahotsen iritsi zaigun Joxean Artzeren poesiak badiosku: bat inon loturik deino ez gara gu askatuko. Ardura, kolektibo eta pertsonala da.

Herri burujabea izanda, etorkizunean atzera begiratzen dugunean, harro sentitzeko memoria ere izan dezagun. Elkarbizitza, egunerokoa, geure neurri eta erara antolatu izanaren harrotasuna.

## OÑATIKO ZINE ARETOAN

**URT 14**  
**19:00**

**IÑIGO LARRAMENDI**

**Gasteiz 1200: Martin Ttipia auzolantzerkia**

Aurretik Errioxa eta beste konkistatuak izan ziren. Egungo Euskal Herriaren konkista Gasteizeko bederatzi hilabeteko setioaz hasi zen, 1200ean. Martin Ttipia elkartekoek, hiriko dantzari eta abeslariekin elkarlanean auzolantzerkia egin zuten 2017an, leku hartako memoriaz jabetzeko. Aurrez, memoriak nortasuna eraikitzeko duen funtzioaz jardungo zaigu Iñigo.

**URT 21**  
**19:00**

**BEÑI AGIRRE**

**Gipuzkoako historia nafarra liburua**

Bi urte badira iada Beñik liburua atera zuenetik, Nabarralderekin. Egungo Gipuzkoa ikuspuntutzat hartuta, kontextu zabalaz arituko zaigu Beñi. Nafarroaz, alegia. Eta ezinbestean, Gaztelaz. Perspektiba honetatik Gipuzkoaren historia beste era batera interpretatuko dugu.

**OTS 4**  
**19:00**

**JOSEBA ASIRON**

**1512ko konkista**

Garai berrietarako haziak landatuta zituen erreinua nola errotik erauzi zuten kontatuko digu Josebak. Proiekzio humanista garbia zuen kultura nola laino ilunek estali zuten. Eta nola etxeokok ere etxekalte egin zuten, elkarren arteko liskarretan lehenik eta espainolen aliatu gero.

**OTS 11**  
**19:00**

**ASISKO URMENETA**

**1620 Nafarroa beheregaina komikia**

Ilustratzaile eta agitadore ezagunak komikia atera berri du Nabarralderekin, Nafar Erresumaren azken hatsak jasotzen dituen. Berau aitzaki hartuta, Pirinioz gaindiko Nafarroaren bilakaera kontatuko digu Asiskok.

**MAR 10**  
**19:00**

**EKAIN MARTINEZ DE LIZARDUY**

**Erraiak dokumentala**

Kobazuloetatik datorkigun oihua. Entzun, sentitu eta kantatu egiten duguna. Hitzik gabeko hizkuntza. Erraietatik ateratzen zaiguna. Arbasoen oihartzuna. Baina noiztik dugu irrintzia gure artean? Bizirik jarraitzen al du XXI. mendean? Hauek eta beste hainbat galderen erantzuna bilatzen duen ariketa da Erraiak dokumentala.

**:nabarraide**  
fundazioa



**OÑATI**  
dabilen herria